

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

**Tokiko Gobernu Batzarrak 2026ko martxoaren 27an hartutako erabakiaren laburpena: 2026an ikus-entzunezko proiektuak garatu eta ekoizteko nahiz gidioak idazteko laguntzak emateko deialdia eta oinarriak onestea**

BDNS(Identif.): 901096.

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/901096>).

Dirulaguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da; horren testu osoa Espainiako Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) eta Gasteizko Udalaren webgunean (<http://www.vitoria-gasteiz.org>) kontsulta daitezke.

#### Lehen. Onuradunak

1. Egoitza soziala eta fiskala Gasteizko udalerrian edukitzea, gutxienez urtebeteko antzinate-sunarekin.
2. Film luzeen, telesailen eta telesail laburren proiektuak garatzeko laguntzen kasuan, direla fikziozkoak, dokumentalak, animaziozkoak edo esperimentalak, jaialdietan, zinemetan, telebistan edo plataforma digitaletan emateko, eta film laburrak ekoizteko laguntzen kasuan (3. oinarriko 3 eta 3 modalitateak), hauek izan ahalko dira onuradunak: pertsona fisiko edo juridiko pribatu independenteak, Ekonomia Jardueren gaineko Zergan duten epigrafea eta laguntza eskatzen duten jarduerarena bera badira eta Zinematografia eta Ikus-entzunezkoen Arteen Institutuaren (ICAA) zinema eta ikus-entzunezkoen arloko enpresen erregistroan inskribatuta badaude. Eskabidea aurkezten denean ez ezik, dirulaguntzaren prozesu osoan ere bete beharko dira betekizun horiek dirulaguntza ematen, obligazioa onartzen nahiz ordaintzen denean.
3. Zinema-gidoiak idazteko laguntzei dagokienez (3. oinarriko 3 C modalitatea), jarduera profesionaltzat gidoiak idaztea duten pertsona fisikoak izan daitezke onuradunak.
4. Hiru modalitateak bateraezinak dira elkarren artean. Deialdi honen barruan, proiektu bat 3 laguntza modalitate horietako bakarrean aurkeztu ahalko da.
5. Eskatzaile bakoitzak gehienez 4 proiektu aurkeztu ahal izango ditu; hala ere, pertsona eta modalitate bakoitzeko proiektu bakar batek jaso ahal izango du dirulaguntza. Modalitate berean 2 proiektu edo gehiago aurkezten badira, puntuazio handiena lortzen duen proiektuari emango zaio laguntza, eta ezetsi egingo dira eskatzaileak modalitate horretan aurkeztu dituen gainerako eskabideak.
6. Proiektu bera gehienez 3 aldiz aurkeztu ahalko da laguntza-deialdi honetara modalitate berean.
7. Edonola ere, Udalaren aurreko deialdietan dirulaguntza jaso zuten proiektuak ezingo dira aurkeztu onuradun gertatu ziren laguntza modalitate berera, salbu eta onuradunak berariaz laguntzari uko egin bazion eta, kobratu bazuen, horri zegokion kopuru osoa itzuli badu deialdi berria ALHAOn argitaratu aurretik.

**Bigarrena. Xedea**

Ikus-entzunezko proiektuak (fikziozkoak, animaziozkoak, dokumentalak, esperimentalak nahiz telesailak) garatu eta ekoizteko eta zinema-gidoiak idazteko laguntza ekonomikoak konkurrentzia-erregimenean emateko baldintzak arautzea.

**Laguntza motak**

1. Film luzeen, telesailen eta telesail laburren proiektuak garatzeko laguntzak, direla fikziozkoak, dokumentalak, animaziozkoak edo esperimentalak, jaialdietan, zinemetan, telebistan edo plataforma digitaletan publikoki emateko, oinarri hauetako A modalitatean adierazten den eran.

2. Film laburrak (fikziozkoak, dokumentalak, animaziozkoak edo esperimentalak) ekoizteko laguntzak, oinarri hauen B modalitatean adierazten denaren ildotik.

3. Zinema-gidoiak idazteko laguntzak, oinarri hauetako C modalitatean adierazten den eran.

**Hirugarrena. Deialdiaren oinarriak**

2023ko apirilaren 21ean egindako ohiko bilkuran, Vitoria-Gasteizko Udalbatzak erabaki zuen Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrari hasierako onespina ematea. Behin betiko ordenantza 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn argitaratu zen (88. zenbakia), eta 2023ko urriaren 1ean jarri zen indarrean. Ordenantza horren xedea da Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaile orokorrak ezartzea.

2026ko martxoaren 27an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak ikus-entzunezko proiektuak garatu eta ekoizteko eta gidoiak idazteko laguntza ekonomikoak emateko deialdiaren oinarriak 2026. urterako.

Udalaren webgunean ([www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)) eta herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daitezke biak.

**Laugarrena. Zenbatekoa**

Deialdi honek 110.000,00 euroko zuzkidura du, 2026rako onetsitako udal aurrekontuko 0821.4331.471.02 partidaren kontura Sorkuntzarekin eta ikus-entzunezkoekin lotutako industrientzako laguntzak izenekoak, honela banatuta:

– 50.000,00 euro film luzeen, telesailen eta telesail laburren proiektuak garatzeko, direla fikziozkoak, dokumentalak, esperimentalak edo animaziozkoak, jaialdietan, zinemetan, telebistan eta plataforma digitaletan publikoki emateko.

– 50.000,00 euro film laburrak ekoizteko.

– 10.000,00 euro zinema-gidoiak idazteko.

Pertsona eta modalitate bakoitzeko proiektu bakar batek jaso ahal izango du dirulaguntza, eta hau izango da gehieneko zenbatekoa:

– Diruz lagun daitezkeen gastuen ehuneko 50, 10.000,00 euroko gehieneko mugarekin, film luzeen, telesailen eta telesail laburren proiektuak garatzeko modalitatean, fikziokoak, dokumentalak, esperimentalak edo animaziokoak izan.

– Diruz lagundu daitezkeen gastuen aurrekontuaren ehuneko 85, proiektu bakoitzeko 10.000,00 euroko gehieneko mugarekin, film laburrak ekoizteko modalitatean.

– 10.000,00 euro proiektuko, gidoien modalitatean.

**Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea**

Hogei egun baliodun, deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 27a

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta  
Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua*  
JOSEBA ANDONI GARCIA-ARDANAZ ARDANAZ